

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2016ko EKAINAREN 2an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko ekainaren 2an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udaltzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2016ko maiatzaren 5ean egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 5 de mayo de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larraulgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorra: Aurrerapenaren onespena, hala bada/Aprobación del Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Larraul.**
- 4. Erroitz Baltzu Mugatuak, 2016 urterako eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada./ Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 2016, realizada por Erroitz Baltzu Mugatuak.**
- 5. Larraulgo Intxausti baserriaren teiltua eraberritzeko obra baimena eskaera, J.I.A./Solicitud de licencia de obras realizada por J.I.A., para trabajos de retejado del Caserío Intxausti de Larraul.**
- 6. Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak aurkezturiko fakturaren onespena, hala bada./ Aprobación de la factura presentada por Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzuak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Asteasuko kirol instalakuntzak erabiltzeko Larraul eta Asteasuko udalen arteko Lankidetzak hitzarmenaren onespina, hala bada./ Aprobación del Convenio de colaboración entre los Ayuntamientos de Larraul y Asteasu para la utilización de las instalaciones deportivas del Ayuntamiento de Asteasu.
8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
10.1."Usurbilgo Udalak aurkezturiko idatziari atxikimendua/Adhesión al escrito presentado por el Ayuntamiento de Usurbil"

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2016 urteko maiatzaren 5eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

12/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 23koa, 2017 urteko Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala abuztuak 3 finkatzea, ebazten duena.

13/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 31koa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea I.M.U.A. jaunari, ebazten duena.


14/2016 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 31koa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea M.J.L.M. andreari, ebazten duena.

15/2016 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 2koa, 2016ko maiatzaren 6ko Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratutako diru laguntza programan sartzea, Zizurkil, Asteasu eta Adunako udalekin elkar eginda, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA: AURRERAPENAREN ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Udalak, Herria antolatzeko Plan orokorra idazteko kontratazioaren behin betiko esleipena M.A. Irazabalbeitia, P. Izaskun eta E. Erkizia arkitektoei eman ziola 2010eko otsailaren hemezortzian egindako Udalbatzarrean.

Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei informazioa eskatu zitzaizen arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Txosten hauek jaso ditugu:

- 1. Ingurumen eta Lurralde politika saileko Lurralde Plangintzaren eta hirigintzaren zuzendaritzako txostena.
- 2. Kantauri Konferderazio Hidrografikoko txostena.

Aurrerakina onesteak barruko administrazio-eragina izango du, kasuan kasuko hirigintza-planaren idazketari begirakoa. Kasu honetan, aginduzkoa da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzea eta onestea proposatzen delako. Hori guztia, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 87. artikuluan xedatu duenaren arabera.

Formaren aldetik, gure udalak aurrerakina onesteko eskumena du, baita Hiria Antolatzeko Plan Orokorrari hasierako eta behin-behineko nahiz behin betiko onespenez emateko ere, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 87, 90 eta 91. artikuluetan ezarri duenaren ildotik.


Aurrerakina onetsitakoan, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 90.3. artikuluan agintzen duenaren arabera, jendaurrean jarriko da bi hilabetez gutxienez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Jendaurrean jarri behar denean, iragarkiak sartuko dira lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten, eta proposatutako antolamenduaren oinarrizko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKI DU

LEHENENGOA. Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerakina onestea, Larraulgo herrian ezartzeko.

BIGARRENA. Larraulgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorra hasteko agiria onestea, tresnaren prestatze-lanetan ingurumen-zehaztapenak sartzeko asmoarekin; orobat,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ingurumen alorrean eskumena duen organoari helaraztea, planaren ingurumen estrategikorako ebaluazioaren prozesua haste aldera.

HIRUGARRENA. Erabaki hau udal-plangintzako aholku-batzordeari eta udalerrri mugakideei helaraztea, onetsitako aurrerakinarekin batera, ezagutu dezaten eta, lehenengoak txostena igor dezan ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 109. artikuluan agintzen duenaren arabera. Era berean, erabakia jendaurrean jartzea bi hilabetez lurralde historikoaren aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura handiena duen egunkari batean iragarkia sartuta. Epe horretan interesdunek iradokizunak eta alternatibak aurkez ditzakete, nahi izanez gero.

LAUGARREN PUNTUA

ERROITZ BALTZU MUGATUAK, 2016 URTERAKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik 2016 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 1.000 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2016 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu magatuari Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurrikusi duela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-ari 2016 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.


BIGARRENA.- 2016ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu magatuari erabaki honen berri ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO INTXAUSTI BASERRIAREN TEILATUA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.I.A.

Ikusirik J.I.A.I. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Intxausti baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera egiten duen.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2016ko maiatzaren 30ean Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO INTXAUSTI BASERRIAREN TEILATUA ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*J.I.A.I. jaunak, Larraulgo “Intxausti” baserriaren teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontua eta Nekane Guede arkitektoak sinatutako Segurtasun eta Osasun oinarritzko azterlan bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila ordezkatzea izango da, teilatura ateratzeko leiho berri bat eginik ere. Lan hauen aurrekontua, 16.080€-koa da (BEZ-a gabe).

“Intxausti” baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, D.20 produkzio zonaldean bereziki. Larraulgo arau subsidiarioen arabera, eraikinak ez du katalogazio berezirik. Baserria, Foru Aldundiko Ondare sailak egindako herri bakoitzeko eraikinen txostenean azaltzen da.

Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen dira, eta 66º artikuluan baserrien zaharberritzearenak.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.


Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.- Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.I.A.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Intxausti baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

OSTARBI ERAIKUNTZAK ETA ZERBITZUAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Agiñezabal Txiki eta Agiñezabal Handi baserrietara doan bidean luizi bat egon zela, otsailaren bukaeran izan ziren euriteen ondorioz, aipaturiko bidearen zati bat erori zelarik.

Ikusirik aipaturiko bidearen erorketak, arrisku handia supostzen zuela bertatik igaro behar zutenentzat.


Kontutan harturik aipaturiko arriskua, 2016ko apirilaren 26an, Alkatetza ebazpenen bidez, bidea konpontzeko Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzu enpresari esleitu zitzaioa. Lanak exekutatu direlarik.

Ikusirik, Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzu enpresak gauzatutako lanen faktura aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ostarbi Eraikuntzak eta Zerbitzu enpresak aurkeztutako faktura onestea eta bere ordainketa burutu dagin agintzea, bere zenbatekoa 10.041,67 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 10.041,67 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Ordainketa hau 2016ko udal aurrekontuetako 601.150.00.01 partidaren kontura egitea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ASTEASUKO KIROL INSTALAKUNTZAK ERABILTZEKO LARRAUL ETA ASTEASUKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat egin nahi duela, Larraulgo herritarrek, Asteasuko herrian erroldatuen atalean ikastaro, kiroldegi eta igerilekuaren onartutako tarifa berdinak aplikatzeko.

Ikusirik, Larraulgo Udalaren eta Asteasuko udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren zirriborroa prestatua dagoela, bertan Larraulgo herritarrek, Asteasuko kirol instalakuntzak erabiltzeagatik, Asteasun erroldatutako herritarren tarifa berdinak aplikatuko zaizkio. Larraulgo Udalak, tarifa horien gehikuntzaren kargu egingo delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Onartzea, Asteasuko kirol instalakuntzak erabiltzeko Larraul eta Asteasuko udalen arteko lankidetzaren hitzarmena.

BIGARRENA: Aneli Urbietta Etxeberria, Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakari andrea ahalmentzea aipaturiko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.


HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Asteasuko Udalari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BERRI LANTEGIA	206,98
FERRETERIA BARBE	45,16
EPEZABAL	62,92
OSTARBI	1.595,63
TOLOMENDI	152,50
KIROLZER	52,30
LASURTEGUI	326,70



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MANPEL	154,72
HOSFRINOR	195,00
EUGENIO LOIDI	176,76
GOIKOETXEA ALBISU S.L.	628,36
SAINT-GOBAIN	21,70
EUSKOAUTO	60,50
EUSKOAUTO	149,44
KIROLZER	51,65
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	66,55
MANPEL	387,35
CORREOS	1,09
GALPARSORO	127,05
TROFEOS TXAPELDUN	149,19
EBA ERKIZIA	653,89
REPSOL	133,74
REPSOL	266,33
IBERDROLA	110,70
IBERDROLA	119,68
IBERDROLA	74,34
IBERDROLA	17,56
IBERDROLA	7,50
MOVISTAR	135,24
MOVISTAR	51,56
MOVISTAR	18,39

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.200,48** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. 2016/15 ALKATETZA EBAZPENA BERRESTEA

Ondoren 2016/15 Alkatetza ebazpena berresteko proposamena egiten da, non ondorengoa dioen:

“2016/15 ALKATETZA EBAZPENA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2016ko maiatzaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako diru laguntza, alegia oroimen historikoa berreskuratzea xede duten proiektuak gauzatzeko udalei diru laguntza ematen diena.

Kontuan izanik Aduna, Zizurkil, Larraul eta Asteasuko Udalek "Oroimen historikoa ikertzeko eta oroimen tokiak berreskuratze" deritzon egitasmoaren III. Fasea garatzeko interesa dutela.

Gorago adierazitako egitasmoak Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalerrietako mendi-adarretan ezarritako defentsa-sistema edo erresistentzia gunearen azterketan sakontzeko helburua duela, eta, lan horretaz gain, dibulgaziozko argitalpen bat prestatzeari ere ekingo zaiola ikusirik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legeari eta Toki Araubideari buruz indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 ED Legegileari jarraiki

EBATZI DUT

Lehenengoa: 2016ko maiatzaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako diru laguntza programan sartzea, Zizurkil, Asteasu eta Adunako Udalekin elkar eginda.

Bigarrena: Aduna, Asteasu, Larraul eta Zizurkil udal elkartearen kudeaketarako Zizurkilgo Udala izendatzea.

Hirugarrena: Zizurkilgo Udala espreski baimentzea Larraulgo Udalaren izenean adierazitako diru-laguntza eskatzeko.

Laugarrena: Aurkezten den egitasmoak 14.827 euroko aurrekontua du, Larraulgo Udalari dagokionez 300 euroko aurrekontu bat onesten delarik."

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: 2016/15 zenbakidun Alkate ebazpena bere osotasunean berrestea.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

10.1. USURBILGO UDALAK AURKEZTURIKO IDATZIARI ATXIKIMENDUA

Ondoren Usurbilgo Udalaleko Alkateak aurkezturiko idatziaren berri ematen da, non ondorengoa dioen:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

“Alkate estimatua:

Ondo dakizu herri baten egunerokoan zenbat gorabehera sortzen diren. Alkatetzak, poz eta esker oneko uneekin batera, buruhausteak ere ekartzen dizkigu. Horregatik, karguaren konplizitateak elkar ulertzea erraztuko duelakoan, zuregana zuzentzen naiz nire kezka azaltzera.

Kontu jakina da Gipuzkoako Zubietan erraustegia egiteko asmoari berriz heldu diola Gipuzkoako Foru Aldundiak. Asmoa aspalditik dator, eta bide katramilatsu eta luzean zalaparta eta tirabira ugari sortu da. Erraustegiaren proiektua Zubietara iristerako, beste hainbat kokaleku ere proposatu ziren: Urnieta, Txingudi, Zestoa, Landarbaso, Aritzeta... Guztietan bizilagunen kezak eta protestak eragin ditu, salbuespenik gabe.

Zubieta, argitu dezagun, udalerrri izaerarik ez duen herrixka da. Administratiboki bitan banatuta dago: parte bat Donostiaren menpekoa da, eta bestea Usurbilen menpekoa. Geografikoki Oria ibaiaren ertzean dago, eta Lasarte-Oriako eta Usurbilgo herriguneak ditu gertuen. Donostiako erdigunea hamar bat kilometroko distantziara dago.

Erraustegiaren proiektuak izan dituen gorabeheretan ez naiz sartuko, baina uste dut problema etiko eta demokratiko baten aurrean gaudela. Inork ez du aldamenean nahi, eta hala ere derrigorrean egin beharrekotzat saltzen zaigu.

Dilema etiko horrek dimentsio latza hartzen du erraustegiak eragiten dituen osasun-kalteak aintzat hartuz gero. Ikerketa asko daude argitaratuta, aldizkari serio, fidagarri eta modernoetan, erraustegien osasun-kalteak nabarmentzeko eta ebidentziaren mailara eramateko. Gipuzkoako mediku-talde batek txosten bat argitaratu du horren berri emateko, eta jendaurrean ere hamaika informazio-saio egiten ari dira. Izango da ikerketa horiei sinesgarritasuna kentzen dienik (gainera, ez dugu zertan denok iritzi bera eduki), baina, osasunaz ari garela, arrisku hutsak aski behar luke arduraren eta prebentzioaren printzipioa aplikatzeko beste ezeren aurretik.


Osasunak kezkatzen nau gehienbat, gaurko eta biharko herritarrek izan ditzaketen minbizi, malformazio eta patologien areagotzeak.

Ez da kezka bakarra, ordea. Beste bi alderdik ere arduratzen naute: batetik, proiektuaren kostu ekonomiko handiak eta finantziario-bide pribatizatzaileak; bestetik, Europak etorkizunerako markatzen dituen direktibei entzungor eginez, Gipuzkoako hainbat herritan abiatutako hondakin-tratamendurako bide jasangarriari muzin egiteak. Alderdi humano, sozial, ekologiko, eta ekonomikotik begiratuta, atzerapauso izugarria da erraustegia eraikitzea.

Gipuzkoako gizartea egunez egun erakusten ari da ez dela behar halako azpiegiturarik. Hainbat herritako birziklatze-tasak Gipuzkoa osora estrapolatuz gero, kitto, bukatuta legoke eztabaida. Garbi dago, beraz, zein den bidea.

Horregatik, zentzu beta du herrian entzuten den esaldi honek:

“Burua duenak ez du ondoan nahi eta bihotza duenak ez du inon nahi.”



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Azken batean, hondakinak kudeatzeko dugun moduak eta, zer esanik ez, dilema etiko baten aurrean hartzen dugun jokabideak, garbi islatzen dute zer garen, nolakoa den gure izaera kolektiboa.

Horiek horrela, hauxe da egin nahi dizudan eskaera:

Alderdien arteko eztabaida eta logiken gainetik, karguak ematen digun konplizitateaz, Zubietako erraustegiaren gaia zure herriko udalbatzarrera eramatea. Nahi nuke itxikeria politikorik gabe eta herritarren ongizatea oinarritzat hartuz, gai honi buruzko eztabaida parametro etiko eta demokratikoetan eman dadin. Eta, ongi baderitsozu, zure herriko udalbatzarrak hartzen duen erabakiaren berri ematea ere eskertuko nizuke.

Besterik gabe, jaso ezazu nire agurra eta esker ona.”

Gaia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

Aldeko botuak: Urbietta, Jauregi, Leon, Pizarro, Sarria eta Serrano Alkate eta zinegotziak.

Kontrako botuak: Asensio zinegotzia.

Abstentzioak: Ez daude.

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengo absolutoz, Usurbilgo Udaleko Alkateak aurkezturiko idatziari atxikimendua ematea onesten da.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.50 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA